

I. XEDAPEN OROKORRAK

ESTATUKO BURUZAGITZA

4026 *Huts-zuzenketa, errege lege-dekretu honena: 8/2020 Errege Lege Dekretua, martxoaren 17koa, COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko presako eta ezohiko neurriena.*

Hutsak atzeman dira COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko presako eta ezohiko neurrien martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuan, zeina 2020ko martxoaren 18ko *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratu baitzen (73. zk.); horrenbestez, honen bidez zuzenketa hauek egiten dira:

39. orrialdean, azken xedapenetako lehenaren lehenbiziko paragrafoan, hau dioen lekuan: «...45.I.B) artikuluari 23. zenbakia gaineratu zaio...»; hau esan behar du: «...45.I.B) artikuluari 28. zenbakia gaineratu zaio...». Eta bigarren paragrafoan, hau dioen lekuan: «“23. COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari...”»; hau esan behar du: «“28. COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari...”».